

EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2019



Bilbao

Az
Azkuna Zentroa
AlhóndigaBilbao

ARTE BIZIAK / DANTZA **OTS. 7** (ostg.)

Kanpai

Sayonara Baby



Sayonara Baby asiar jatetxean, elkarreraginean dihardute hainbat pertsonaia aldakor eta askotarikok, egoera absurdo eta deliranteak sortuz elkarreragin horren bidez. Ezerk ez du zentzurik, itxuraz, baina denak jarraitzen du bere bidea.

«Koreografiari nahiz dramaturgiari dagokienez, absurdoaren antzerkia dugu inspirazio-iturri, baita estetika postmodernoa eta intentsitate biziko hizkuntza darabilten zinemako erreferentziak ere», diote Kanpai taldeko kideek.

Sayonara Baby ikuskizunak ongi egokitzen ez diren zenbait pertsonaia erakusten dizkigu: gizartean beren tokia aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonaiak. «Beren indargune nahiz ahuleziekin zeharo liluratzen, limurtzen eta hunkitzen gaituzten pertsonaiak azaltzen ditugu».

Bakarrik dauden pertsonak, umezurtzak, maitasunerako gaitasunik ez dutenak, errealitatean eraginik txikiena sortzeko ahalmenik gabeak (beti beste nonbait, haren helmenetik kanpo).

Sayonara Baby giza izatearen mapa bat da, hura osatzen duten pertsonen mapa bat. Haien arteko desberdintasunak, bitxikeriak, muturrak, ohiz kanpotikoa du ardatz.

«Ikusleari gonbita egiten diogu bere unibertso txikietan murgil dadin. Pertsonaiek laguntza, konplizeak, isil-mandatariak behar baitituzte. Beren bilaketa-prozesuan galduta dabiltzan bitartean, iheskortasunarekin etsitzen dute. Fisikoki eta antzezpenaren bidez adierazi nahi dugu pertsonaiek nolako ezintasuna duten beren bizitzak behar bezala kudeatzeko, haiengandik espero den moduan jarduteko». Kanpai

////////////////////////////////////



KANPAI

////////////////////////////////////

Kontsultatu arte biziak programaren egitaratu osoa web orrian: www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

Ostailak 7, osteguna

19:30 (55')

Auditorioa

Gaztelania

10€ / 8€ Az Txartelarekin
Sarrerak: Infopuntua eta
www.azkunazentroa.eus

////////////////////////////////////

FITXA ARTISTIKOA

Konpainia: Kanpai (Euskadi)

Jatorrizko ideia eta

zuzendaritza: Natalia de Miguel eta Jorge Jauregui Allue

Sorkuntza eta antzezpena:

Mikel Aristegui, Niko Hafkenschaid, Jorge Jauregui Allue eta Natalia de Miguel

Jatorrizko musika: Niko Hafkenschaid

Argiak: Gabriel Punzo

ekoizpena: Kanpai

Diru-laguntza eman duena: Eusko Jaurlaritza

Koprodukzioa: Bilbao Eszena

Laguntzaileak: Pabellón 6, Urduliz Kultur Etxea

////////////////////////////////////

 **Kanpai Natalia de Miguel & Jorge Jauregui Allue**

 **#Kanpaiartinmotion**